



Esp. kodea: 2013ZTXU0006
Titularra: OZMA

Gaia: SANTAMASETAN KALEKO SALMENTA
EGITEKO BAIMEN ESKAERA
Hasiera data: 2013/09/05

Alkatetzaren ebazpena

N 13/02250

“Santamasak 2013”an kaleko salmenta egiteko, baimenak emateko prozedura arautzen duen agiria onartzeko proposatzea.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek “Santamas” jaietan zehar, bide publikoan (Garibai-Kontzetzio), saltzaile ibiltariak salmenta postua jarri ahal izateko “erabilpen amankomun berezi” lizentziak xedatzeko baldintza juridiko-ekonomiko-administratzaile plegua aurkeztu eta ontzat ematea proposatu dute.

Pleguaren ezaugarri nagusien berri ematen da Udalaren Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko txostenean, besteak beste:

- a) Aurkeztu den prozedurak urteetan zehar Arrasateko kaleetan eman izan den aktibitatea erregularizatzea nahi duela.
- b) Helburua: Arrasateko Udalak administrazio prozedura deitu du “edozeinek erabiltzeko jarduera berezi”ko lizentziak emateko; lizentzia horiek gaitzen dute bide publikoan (Garibai-Kontzezino aldean) jartzea kaleko saltokiak Santamas egunean (3 m x 1 m) 3 metro linealeko espazioak erabiltzeko lizentziak emango dira. Gehienez ere pertsona bati emango diogu lizentzia, elkarren segidako 3 m-ko 3 espazio erabiltzeko, eta 150 izango dira Udalak emango dituen 3 m-ko espazioak.
- c) Iraupena: 2013/12/22 (egun osoa)
- d) Lizitazioa: Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduko 77. artikuluan xedatutakoaren arabera, 1372/1986 Errege Dekretua, jabetza publikoko ondasunen “edozeinek erabiltzeko jarduera berezia”ri dagokionez, lizentziak emango dira zozketa eginez.
- e) Prezioak: 2013. urteko Ordenantza Fiskalak jasotakoak, besteak beste, Santamas egunari dagokio, 15 €/m².

Aipaturiko guztia aztertu ondoren, hauxe proposatu du Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak:

- 1.- Ontzat ematea Santamas egunean kalez-kaleko (Garibai-Kontzezino aldean) salmentarako baimenak emateko prozedura administratiboa arautuko duen Plegua.
- 2.- Aipatu den prozeduraren lizitazio iragarkiak argitaratzea.

Arrasate 2013 ko irailaren 27a

ALKATEA

